

Atlantika

Dezifratu Kripto magikoa

Lau arkeologoren hegazkina irla ezezagunean erori da. Antzinako bederatzi zibilizazio bizi dira bertan, eta hauen kulturaz eta bizimoduaz asko ikasiko dute arkeologoek, irlan atzera eta aurrera dabiltzala. Egia guztiak ezagutzen dituen Kripto objektu magikoaren lau puskak bilatzea izango dute helburu, azkenik puzzlea osatuta mezu sekretua asmatzeko.



ESTITXU EIZAGIRRE

ERROMA, Persia, Bikingoa, Grezia, Zelta, Egipto, Azteka, Inka eta Maia herriak ezagutzeko abentura biziko du Atlantikan barnertzen denak. Bertako jainko-jainkosak liskar batean leheritu dira: nor da nagusi irlan? Zerutik erori berri diren arkeologoen lana izango da Kripto objektu magikoaren lau zatiak bilatu eta hari galdetzea. Antzinako zibilizazio hauen kulturari eta bizimoduari buruzko galderak erantzunez lortuko ditu arkeologo bakoitzak bidean agertuko zaizkion oztopoei aurre egiteko Jainko kartak.



Jokoaren amaiera: Kripto objektu magikoaren zatiak Kode txartelaren gainean jarrita, zulo txoetatik hizki batzuk irakurriko dituzu. Hizki hauek ordenatuz asmatu zein den jainkoen eztabaidak uxatuko dituen erantzuna!


Garaitu izaki maltzur mitologikoak

Kripto zatien bila doala, arkeologoak besteak beste bikingoen Loki gaizkilearekin egingo du topo, edo aurpegira begiratuta harrizko bihurtzen duen Greziako medusarekin, edo zelten aitorna gaiztoa den Balor-ekin... Horiei aurre egiteko, motxilatik Jainko kartak aterako ditugu, eta hauek tan topatuko ditugu oztopoak gainditzeko beharrezkoak diren gaitasunak (jakinduria, azkartasuna, indarra, magia...).

Estrategia eta zuhurtzia landuz

Kripto zatiak eskuratu dituen arkeologoa abentuaren abiapuntura itzuliko da, Kriptoaren mezu sekretua dezifratzera. Lau zatiak eskuratzeko zain egon zaitezke, edo zati bakarrarekin erantzuna asmatzera arriskatu, edo

bigarren esploratzaile bati itxaroten gelditu, bien artean bildutako Kriptoak batuz erantzuna asmatzeko... Zeuk erabaki, baina behin erantzuna emanda, galdu edo irabazi, hori bukatuko da abentura zuretzat. ■



✓ **Mahai jolasa:** Atlantika. Zibilizazioen kode ezkutua.

✓ **Adina:** 8 urtetik gora.

✓ **Jolasaren iraupena:** 20-40 minutu.

✓ **Prezioa:** 33 euro.

✓ **Eskaerak:** 943 368661
www.luditoys.com